

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Getxo



Aurkibidea

Udalerria: Getxo

Sarrera



Bilboaldean kokaturik dago, Bilboko itsasadarraren eskuinaldean. Euskal Herriko seigarren hiririk handiena da. Herri izaera duten hainbat auzo ditu: Algorta, Andra Mari edo Elexalde, Erromo (Itzubaltzeta), Neguri, Areeta eta Aiboa. Hauek ditu mugakide: Ekialdean, Sopela, Berango eta Erandio; Hegoaldean, Leioa; Mendebaldean: Portugalete, (Abrako golkoa zeharkatuta Santurtzi); eta, Iparraldean, Bizkaiko golkoa. Oraindik Elexalde auzoan hitz egiten den euskararen Mendebaldeko euskalkiaren aldaera bat da Getxoko jatorrizko hizkuntza.

- **Biztanleak:** 80.770
- **Euskaldunak:** %29,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **16**
- Zintak: **16**
- Pasarteak: **189**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **18**
- Bideoak: **171**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- Gure ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Elixabete Agirregoikoa Azkorra (1967)

Jokin Agirregoikoa Azkorra (1958)



Fernanda Ayo Llona (1908)

Algortako Portu Zaharreko Perizena etxera ezkondu zen. Gizona arotza zuen, ebanista. IRALEko kideek egin zioten elkarriketa 1991n Bizkaiera Bildumarako.



Edurne Azkorra Ormaza (1932)



Miren Begoña Bilbao Azkorra (1957)



Alberto De Abajo Gonzalez (1971)

Soziologian lizentziaduna eta UEUko idazkaritzako kide-ohia da.

Andere Gonzalez Benedikto (1988)

Barakaldon jaio zen 1988ko apirilaren 27an, baina Algortakoa da. Duela urte bi inguru Ean bizi da. Zugaztietakoa du aita (La Arboleda) eta bilbotarra ama. Bi senide izan dira etxean, eta Andere da bietan zaharrena. "Arte Ederrak" ikasketak egin zituen, eta "Multimedia eta Komunikazioa"n espezializatu. Musika ikasketak ere eginga da eta egun DBHko irakasle moduan dihardu beharrean. Koadrilako Garazi Lopez de Uralderekin elkarriketatu genuen eta euskara kanpainak, Getxoko hizkuntza errealtatea, hezkuntza, irakurzaletasuna, telebista saioak eta beste hainbat kontu izan genituen mintzagai.



Jasone Ibarra Markaida (1967)



Frantzisko Kaiero

Baserritarra. Hiru neba-arreba izan ziren. Antzinako bizimoduaren inguruko kontu ugari kontatu zituen 1991n egin zioten elkarrizketan.

Juan Kardas Bilbao (1935-2018)

Baserritarra. 1994an egin zitzaion elkarrizketa, 60 urte inguru zituela.

Garazi Lopez de Uralde Zarraga (1988)



Algortakoa da Garazi eta Algortakoak ditu gurasoak ere. 1988ko abenduaren 17an jaio zen Bilbon. “Arte Ederrak” ikasketak egin zituen Bilbon, egun Haur Hezkuntzako irakasle izateko ikasketak egiten ari da eta euskara teknikari moduan ari da lanean Egizu Getxo Euskaldun Getxoko Euskara Elkartean. Hainbat konturi buruz dihardu Garazik, koadrilakoa duen Andere Gonzalezekin batera egin genion elkarrizketan: euskara kanpainak, Getxoko hizkuntza errealitatea, hezkuntza, irakurzaletasuna, telebista saioak...

Ziortza Mangas Blazquez (1988)



Barakaldon jaio zen Ziortza, 1988ko urriaren 14an, baina Algortarra da, Algortan bizi izan baita beti. Ama Portugaletekoa du eta Barakaldokoa aita, ezker aldekoak biak. Hiru senidetan gazteena da eta Psikologian lizentziatua da, eta masterra ere egin du, Psikologia laboralaren inguruan. Koadrilako Ane Otaorarekin elkarrizketatu genuen, eta hizkuntza ohituren bueltan hausnartzen luze aritu ziren, batzuekin eta besteekin dituzten joeren azterketan begi puntua jarrita.

Josefina Mota Bilbao (1923)



Laukizko Mendiondo auzoko Kurtimintu errota jaio zen 1923an. Aita errota jaiotakoa zen eta bertako kanteran lan egiten zuen. 18 neba-arrebatatik, bera hirugarrena izan zen. Zazpi urte zituela, ama hil eta aitak ezin zituenez denak etxean mantendu, Getxoko baserri batera bidali zuten neskame. Bertan, umeak jagoteaz gain, ugazaba-andrearekin batera esne-saltzaile moduan ere jarduten zuen. Bere ugazaba-andrea eta bertako seme-alabak bere familia izango balira bezala maite zituela kontatu zigun eta hasieran hizkuntzarekin izandako arazoak ere aipatzen ditu. Haiekin hamar urte egon ondoren, 20 urte zituela, Ebaristo Kamiroaga gudariarekin ezkondu eta seme bat izan zuten. Laukizen jaio zen arren, umetatik Getxon bizi izan zen eta hitz egiterakoan bertako euskara egiten duela nabaritzen da. Bere ahizpa [Manolik](#), aldiz, urte gehiago bizi izan ditu Laukizen eta etxeko euskara mantendu du.

Ane Otalora Landa (1988)



Ane 1988ko irailaren 15ean jaio zen Bilbon, baina guraso biak Bilbotarrak baditu ere, Algortan bizi izan da beti. Hiru anai-arrebatan zaharrena da. Arte Ederretan lizentziatua da eta master bat egin du postprodukzioan. Koadrilako Ziortza Mangasekin elkarriketatu genuen, eta hizkuntza ohituren bueltan hausnartzen luze aritu ziren, batzuekin eta besteekin dituzten joeren azterketan begi puntua jarrita.

Juanita Ugarte Bilbao (1924)

Diliz auzokoa da. Baserritarra, esne-saltzailea eta etxekoandrea izan da.

Begoña Yurrebaso Urrutia (1930)

Getxoko Etxebarri (garai batean Larrazabal) baserrian jaioa. Ama zuen bertakoa. Aita, berriz, Igorrekkoa zen, baina gazterik hasi zen Bilbon beharrean. Getxora ezkondu ziren eta lau seme-alaba izan zituzten. Begoña geratu zen baserrian, neba-arrebetan gazteena izan arren.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Euskara sustatzeko kanpainak

- **Hizlaria(k):** Gonzalez Benedikto, Andere; Lopez de Uralde Zarraga, Garazi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** GTX-007/006
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:11:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Garazi euskara teknikari aritzen da lanean, eta euskara sustatzeko kanpainari buruzko iritzia ematen du. Gazteengana heltzea kostatzen zaie gehien. Andere DBHko irakaslea da, eta nerabeen euskararekiko jarrerari buruz mintzo da.

Transkripzioa

- Gañera lanean ari zarete pixkat euskalduntze prozesu horiei begira oso sensibleak diran bi eremutan, ez? Bata ikastetxe batean, hezkuntzan eta zu euskal teknikari gisa. Garazi, nola bizi ditzuzu? Ze iritzi duzu? Nola ikusten duzu kanpaina, euskararen aldeko kanpaina hoiek guztiak? eta ze zuri tokatu zaizu hoiek diseinatzea ere eta.

- Ba batzutan nik uste, apur bat motz geratzen garela ze ez gara publiko guztira heltzen ta adibidez, badaukagu adin tarte bat, ez dakit, justo gazte muga hori, hamazortzi edo eskolatik kanpo dauzenak ta hogeta hamar-hogeta hamabost urtera arte hor apur bat flojo. Baiña egia da, berba-lagunen perfilla hogeta hamabost urtetik gorakoa dela. Oin, justo igez gazte gehiago bildu ziren, ba poteoan edo holan engantsatzen dozuz, baiña oro har, hegeta hamabost urtetik gorakoak, emakumeak gehien bat, ta ordun ez dakigu. Hori da elkarteetan izan dogun arazo bat urtetan bebai, nola heldu eremu horretara.

- Hain justu, Anderek bizi duen eremu hori, ez, izan daiteke, ezta?

- Ba bai, bai, nerabezaroa justo nire tarte da, kontrolatzen dodan tarte. Bai, nik Leioan iten dot lan. Eta egia da, justo Leioako ikastola honetan, leku ezta bakarrik Leioako jentea etorten, Albotako jende asko dator, Gati ke berbai, ta ordun bai ikusten da etxetik edo baserri inguru horretan bizi dizenak, edo rural parte horretan bizi dizenak. Askok etxetik badakarre gero euren artean euskera zaintzen dabela, eta ikastolan batez be euren artean. Baiña oso erdalduna da. Nerabezaro puntu hori, egunero gabiz euren atzetik "euskeraz mesedez" "euskeraz mesedez". Azkenean, sartze eutze hametik ta evidentemente, eurentzako da... ta listo. Bai, bai egie da nerabezaro horretan, azkenean edo atzetik zauz edo egunerokotasunien eztabil lez erabiltzen etxean, ez dute erabiltzen; ikastola bakarrik da eremu bakarra. Bakarrik, azkenean, edo gogo hori sartzen jake eurei bebai, ez, euskera hori defendatzeko edo...

- Askotan, nik uste erlazionatzen dabela hizkuntza eskolagaz. Orduan esaten dabe "eskolatik kanpo ez dot euskararik egingo". Ta aisialdian be egia da ez dakit Getxon, adibidez, geroz eta aukera gehiago dago ba aisialdian euskaraz egiteko. Zeozer, baiña orokorrean; ba umeak, ba kirola, ba futbol taldeak, etab. Ba guk bai daukagula proiektu bat, hitzarmen kontu batzuekin eta euskara sustatzeko. Batez ere, umeekin edo umeei zuzendutako ekintzetan baiña askotan ez dia betetzen, begirale euskaldunak, entrenatzaile euskaldunak; ba hor bebai jendearen prestutasuna behar da ta jarrera positiboa. Ta askotan, pertsonaren menpe dao.

- Nik hezkuntzan, nik hor hezkuntzan bai ikusi dotena izan da, igual LH-tik datozenak, euren artean euskaraz iten dabe dana eta oso errez harremanak. Eta, ikusteot, bai patio, bai klase, bai... Ez zara atzetik egon biher gogoratzen: "txo, ikastolan zauz". Saiatu ez, baiña heltzen diez DBH bat ondo, bi bueno... DBH hiru-lau desastre! Normalean, izaten da eta berdintzo igual, hasikeratik hasi diez euskaraz eta harreman guztiek dakeze DBH hiru-lau heltzen diz adin tarte horretara, ta ez dakit, ba igual egie da be bai kanpoko jende gehiau ezagutzen debela,ez? Igual amistade gehiau iten dabez beste kuadrilla batzukaz, beste eskola batzutako jendeagaz. Orduen be igual, horrek harreman ingo dau, eragin ingo dau horretan, eztakit.

- Nik adibidez, haur hezkuntza ikusi dudana da praktiketan ta nabaritzen dala pillo bat haien ama-hizkuntza zein dan, baiña hor bai igartzen da euskaraz komunikatzen direnak, bestiek daukie griña hizkuntza ikasteko ta, jolasen bitartez ta lortzen da asko ta lehen hezkuntza garatzen da hori. Gero ya, ez dakit ze gertatzen dan.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Erdaraz egin beharra, oso gogorra (GTX-005/002)

Eskolan erdaraz egin beharra oso gogorra izan zen berarentzat. Goiz eta arratsalde zirenen eskolara, eta dotrinara egunero.

2. Euskaraz egitearren burla (GTX-005/003)

Erromeriara Algortara, Areatzara eta Berangora joaten ziren. Ez zuen euskaraz egiten etxean besterik, burla egiten ziotelako. Baserritik bizitzea oso gogorra zela dio.

3. Umetako bizimodua (GTX-005/004)

Etxean beti euskaraz egiten zuten eta erdaraz ideiarik ere ez zeukan eskolara joan zenean. Txikitan, olgetan aritzen zen baina gutxi. Jaietan jatordu bereziek poz handia ematen zioten.

4. Maritxu teiletako (GTX-005/005)

Hagina jausitakoan, teilatura botatzen zen eta kantatu egiten zuten, bota baino arinago. "Maritxu teiletako gona gorridune, hautsi hagin zaharra ta ekarri barrie" kanta abesten zuten.

5. Aita gurdizaina, ama eta biak soroan (GTX-005/007)

Aita gurdizaina zen. Amak eta biak soroan egiten zuten lan eta esnea ere banatzen zuten Algortan.

6. Zinemako filmak gaztetxoentzat (GTX-005/008)

Zinemara joaten zen. Filmak aipatzen ditu.

7. Bonben eta moroen beldur (GTX-005/009)

Hamahiru urte zituen gerra hasitakoan. Hegazkinak zetozenean, etzan egiten ziren alkatxofen azpian. Moroak zetozela esaten zieten eta asko beldurtzen ziren.

8. Goiherri eta Beherri (GTX-005/013)

Getxon bi zati zeuden: Goiherri eta Beherri. Elizan oraindik ere bereizketa egiten dela dio.

9. Hondartzan ikatza eta egurra batzen (GTX-005/014)

Azkorri esaten zaion hondartzari Gorrondatxe esaten zioten, eta kainoiaren azpikaldeari Batx. Ikatza eta egurra batzen zituzten han.

10. Amarekin hondartzara (GTX-005/015)

Amarekin bainuak hartzera joaten zen bederatzi egunez, abuztuan.

11. Andra Mari jaiak eta Aingeru Goardakoaren eguna (GTX-005/016)

Andra Mari jaietan gonbidatuak izaten zituzten etxean eta erromeria ere izaten zen. Beretzat onena gozogilea izaten zen. Aingeru Goardakoaren eguna. Su artifizialak botatzen zituzten. Etxeetan giro handia sortzen zela dio.

12. Nobioak ezkutuan (GTX-005/019)

Bere senarra merkantzia-ontzian ibiltzen zen. Tarteka senarrarekin joaten zen. Gurasoak itxiak ziren nobio kontuetan. Bikoteak hormaren atzean ezkutatzen ziren elkarrekin egoteko.

13. Alabaren erditzea eta elizara sartzea (GTX-005/024)

Alaba jaio zenean, senarra ikustera etorri zen. Etxean izan zen erditzea, gogorra. Elizara sartzea.

14. Bizimodua zelan aldatu den (GTX-005/028)

Senarra itsasoan zegoen bitartean, berak soroan lan egiten zuen eta plazara joaten zen saltzera. Bizimoduaren aldaketa handiaz berba egiten du.

15. Artoa, indaba eta patata (GTX-005/029)

Artoa, indaba eta patata asko jaten zuten. Artoak labean ihartu, garandu eta irina egiten zuten errotan. Ume zirela tranpa egiten zieten azokan bezeroek.

16. Getxo lehen (GTX-005/030)

Getxon baserri batzuk bakarrik zeuden. Denak ziren ezagunak, familiakoak moduan. Bideetan lokatza handia egoten zen.

17. Euskararen transmisioa (GTX-005/032)

Euskararen transmisioaz berba egiten du. Bakoitzak bere moduan baina egitea dela garrantzitsuena dio.

18. Batua ulertu ez baina beharrezko (GTX-005/033)

Telebistako euskara ez duela askorik ulertzen dio. Batua beharrezkoa dela uste du baina ez dagoela ikasten hasteko moduan. Asteko egunak esaten ditu.

19. Algorta, orokorrean, erdalduna (GTX-007/005)

Algortan ez da ia baserririk geratzen eta kaletarrak dira Andere eta Garazi. Algorta erdalduntzat jotzen dute, orokorrean, euskaraz bizitzeko aukera ematen duten guneak badiren arren. Amorrutik puntu batez bizi dituzte hizkuntz errealtate horretan sortzen diren hainbat egoera. Hala ere, azken urteetan jendearen aldetik jarrera hobea sumatu dute euskararekiko.

20. Garazi eta Andere nerabeak (GTX-007/007)

Garazi eta Andere nerabeak zirenean gaztelararako joera handia zuten. Nerabeak zireneko garaiari begira jarri dira.

21. Euskararekiko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa (GTX-007/008)

Kontzientziazio eta sentsibilizazio lana ikusten dute Garazik eta Anderek euren egungo euskaldun izaeraren atzean, baina baita jendarte euskaldunak eurengan eragindako sedukzio moduko bat eta koherente izan beharra ere.

22. Euskara eta eskola (GTX-007/009)

Haur, nerabe eta gazte askok ikasketekin edo eskolarekin lotzen dute euskara. Lotura hori positiboa edo negatiboa ote den eztabaidan dabiltz Garazi eta Andere.

23. Egizu Euskara Elkarte (GTX-007/011)

Garazik "Egizu Euskara Elkarte"n egiten duten lanaren berri ematen du. Hogeita hamar urtetik gorako herritarrengana heltzen dira gehienbat, eta euskarari esker egiten dute elkarren arteko harremana askok.

24. Kuadrillan, gehienetan, gazteleraz (GTX-007/013)

Ikastolan eta institutuan ibilitako bi talde elkartuta eratu zuten egun kuadrilla dutena, eta gaztelera nagusitu ohi da talde handian daudenean.

25. Esamolde eta irainak, gazteleraz (GTX-007/014)

Anderek dio esamoldeak, lokuzioak, irainak eta halako gehienak gazteleraz sumatzen dituela bere inguruan, bai Algortan, eta baita Eako lagunartean ere. Garazik dio hizkuntzaren erregistro informala ez dela eskolan behar adina lantzen. Anderek ez du garbi ikusten. Hizkuntzaren alderdi informal hori euskalduntzeko balizko moduez dihardute.

26. Kanpaia jo (GTX-007/015)

Anderek ikasleekin egindako irteera batean gertatutakoek badute zerikusia hizkera informalekin.

27. Euskarari dagokionean, halduak al dira gazteen eredu? (GTX-007/016)

Garazik dio ongi dagoela haur eta gazteei euskaraz egin behar dutela esatea, edo aukera hori eskura dutela gogoraraztea, baina ereduak ere garrantzitsuak

dira, eta bere ustez, gutxitan izaten dira helduak gazteentzako eredu, euskararen erabilerari dagokionean, behinik behin.

28. Hizkuntza ohitura aldatzea ez da erraza (GTX-007/017)

Ingurune hurbileko zein zabaleko harremanak hizkuntza jakinei lotuta izaten ditugu, eta ez da erraza hizkuntza ohitura horiek aldatzea.

29. Laneko harremanak euskaraz (GTX-007/018)

Garazik eta Anderak euskaraz egiten dute lankideekin, bai lanean aritzeko garaian, baina baita aisialdi eta atsedean unetan ere.

30. EGA tituluaren bila joan eta gazteleraz egin behar (GTX-007/019)

Garaziri tokatzen zaio administrazioarekin hartu-emanak izatea, lana dela medio, eta gutxitan izan du arazorik hizkuntza kontuekin. Baina lagun bati gertatutakoa kontatzen du, EGA tituluaren bila joan eta gazteleraz eskatu behar izan zuenarena.

31. Osasun etxera telefonoz hots egin (GTX-007/020)

Anderak osasun etxera deitu zuen behin, eta administrariarekin euskaraz elkar ulertu ezinik ari zela ikusita, gazteleraz hastea beste erremediorik ez zitzaion geratu.

32. Euskaraz ez dakienak euskararekiko interesa azaltzen duenean (GTX-007/021)

Euskararekiko interesa azaldu izan dien jendearekin topo egin izan dutenean sentitu izan duten poza azaltzen dute Garazik eta Anderak.

33. Euskaldunaren itxura (GTX-007/023)

Batzuetan itxuragatik egiten diogu jendeari erdaraz edo euskaraz; jazkeragatik, orrazkeragatik ... Bestetik, udalekuetan hezitzaile ari zela, euskaraz egiteagatik erantzun txarra eman zion 7 urteko haurrarena kontatzen du Garazik.

34. Euskarak interneten presentzia izatea inportantea da (GTX-007/025)

Gazteek harreman gehienak sare sozialetatik egiten omen dituzte. Garazi eta Andereren ustez, ordea, sare sozialetan helduek gazteek baino gehiago egiten dute euskaraz.

35. Telebista, irratia eta sare sozialak (GTX-007/026)

Andereren ustez oso ongi egituratuta dago zenbait irrati eta telebista saiok egiten duen IKTen erabilera ikus-entzuleen partehartzea sustatzeko. Oso bestelako kontua da, ordea, saio horietako zenbaiten edukiekin eta zabaltzen dituzten ereduarekin ados egotea.

36. "gu ta gutarrak" telebista saioa (GTX-007/028)

Andera eta Garazi ez daude ados zenbait telebista saiotan sexuaren eta harremanen gaia lantzen den moduarekin.

37. "Son Goku", "Doraemon" eta beste (GTX-007/029)

Dragoi bola eta Doraemon marrazki bizidunen oroitzapen ona dute. Hizkuntza aldetik egoki askoak juzkatzen dituzte; ez, ordea, transmititzen dituzten baloreen aldetik, Doraemonen kasuan, behinik behin.

38. Gazteleraz irakurri, euskaraz baino gehiago (GTX-007/030)

Anderek, euskaraz baino, gazteleraz irakurtzeko ohitura handiagoa du. Hala ere, euskaraz idatzitako liburuak ere gustura irakurri ohi ditu, baldin eta itzulpenak ez badira.

39. "Irakurlearen txokoa" ekimena (GTX-007/031)

Garazik gehiago irakurtzen du gazteleraz, euskaraz baino. Hala ere, Egizu Getxo Euskaldun Elkarteantolatu ohi dute "Irakurlearen txokoa" ekimenari esker, bere burua euskaraz gehiago irakurtzera derrigortu duela dio. Euskal idazleen lanak sustatzen dituen ekimen horri buruzko xehetasunak ematen dizkigu.

40. Itzulpena ala jatorrizkoa? (GTX-007/032)

Hainbat libururen euskarazko itzulpenak alde batera lagatakoak dira Garazi eta Andere. Hala ere, ohartu dira, gazteleraz irakurtzen dituzten asko eta asko itzulpenak direla baita ere, eta horiek alboratzeko joerarik ez dute.

41. Irakurzaletasunaren sustapena eskolan (GTX-007/033)

Garazik eta Anderek diote lan asko dagoela egiteko oraindik eskoletan irakurzaletasunaren sustapenari dagokionean. Anderek zenbait jarduera aipatzen ditu, lanean aritzen den eskolan praktikan jartzen dituztenak.

42. Zer eskain dezake irakurzaletasunak? (GTX-007/035)

Irakurzaletasunak ongi pasatzea dakar, irudimena lantzea, eta pertsona barrez lehertzen jartzetik, hunkituta negar eginarazteraino eraman dezake.

43. Book triller lehiaketa eta "Nahiago nuke mutila banintz" liburua (GTX-007/037)

Irakurketa gauza intimoa ote den galdetuta, Anderek dio ez duela zertan beti hala izan behar. Irakurzaletasuna sustatzeko ikasleak ahoz gora irakurtzen jartzen ditu berak sarritan. Bestalde, "book triller" bat zer den azaltzen du. Elkarriketa egin genuen garaian, Andere David Duranek idatzi eta Gerardo Markuletak itzultitako "Nahiago nuke mutila banintz" liburua ari zen ikasleekin irakurtzen.

44. Liburu batek gatibatuta (GTX-007/038)

Libururen batek sekula beste eginbehar batzuk baztertzea erabakitzeraino gatibatu izan dituen galdetuta, baietz diote Anderek eta Garazik.

45. Jatorrizko filma azpigituludunak (GTX-007/039)

Andere eta Garazi telebistan jatorrizko filma azpigitulatuak eskaintzearen alde daude.

46. Euskal giroa zein herritan (GTX-007/042)

Algortatik mugitzen hasiz gero, inguruko zein zein herritan topatu daitekeen giro euskaldunik.

47. Euskalkiak eta elkar ulertzeari buruz (GTX-007/043)

Normalean ez dute beste euskaldunekin elkar ulertzeko arazorik izaten, baina muturreko kasuetara joz gero, arazoak izan litezkeela diote. Hala ere, komunikazioa biren kontua da, eta euskalkiak euskalki, elkar ulertzeko borondaterik baldin bada, tokian tokiko hizkerak ez dira muga, muturrekoak izanik ere.

48. Seme-alabarik izatekotan... (GTX-008/007)

Argi dute biek, seme-alabarik izatekotan, euskara transmitituko lioketela/ lieketela. Bai eta atzerrian bizitzen amaituko balute ere, eta bai eta bikotea euskalduna izango ez balitz ere.

49. Euskararen belaunaldi sustatzailea familian (GTX-008/009)

Eurek dakitela, behintzat, euren aurreko belaunaldiak ez dira euskaldunak izan, eta euskaldun izatearen hautuari eutsiz gero, eurak izango lirateke lehenak.

50. Euskara herri bat da (GTX-008/011)

Aneren esanetan hizkuntzak herrien muina dira, eta Euskal Herrian oso politizatua sumatzen du baieztapen horren ingurumaria. Zentzu horretan, inbidia sentitu ohi du Kataluiniari begira jarrita, esaterako. Ziortza ados dago, eta uste du joera horiek traba besterik ez direla hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Hala ere, egoera aldatzeko bidean asko da gure esku dagoena.

51. Euskaldunak eta "euskaldunagoak" (GTX-008/012)

Ane eta Ziortzaren ustez ez du batere laguntzen, euskararen sustapenerako eta normalizaziorako bidean, euskaldun askoren hizkuntza bizitzeko moduak; "euskaldunago" nor izan konpetitzen dugu, eta horren konplexuak eragiten ditu hiltunengan. Anekdotak pare bat kontatzen dute.

52. Hizkuntza ikasten ari denarekin pazientzia eduki beharraz I (GTX-008/013)

Anek dio, euskara ikasten ari den jendearekin hitz egitea tokatzen zaigunean pazientzia galdu ohi dugula, askotan. Ziortzari ere gertatu izan zaio halakorik.

53. Euskara ikastearen inguruko mitoak (GTX-008/014)

Reyes Prados telebista aurkezlearen kasua aipatzen dute, eta euskara ikastea ezinezkoa dela dioen mitoa ezeztatu.

54. Hizkuntza ikasten ari denarekin pazientzia eduki beharraz II (GTX-008/016)

Gurasoak euskara ikasten dituen nerabeari gomendioak, eta tokian tokiko hizkuntzak ikastearen abantailez.

55. Euskara ez da "guay". (GTX-008/018)

Ziortzak dio nerabezaroan euskarari eustea eta hizkuntza garatzen jarraitzea ez dela beti erraza izaten (geografikoki ez du zehaztapenik egiten). Euskara erdarengatik ordezkatzeko den garaia da nerabezaroa. Goi mailako ikasketak zein hizkuntzatan egin adin buelta horretan erabaki behar izaten da.

56. Arte Ederretan irakasle euskaldunak falta (GTX-008/019)

Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle euskaldunak ez izateari eta hezkuntza sistemako beste "zentsugabekeri" batzuei buruzko iritziak.

57. Ezin euskaraz elkar zirikatu, ezin euskaraz haserratu (GTX-008/020)

Ziortzak dio Getxo inguruan nerabe askok gazteleraz soilik egiten duela nerabezaroan, eta hizkuntza mailako errekurso pertsonal faltari egozten dio. Ziortzak eta Anek aitortzen dute hizkuntzen zenbait eremu informal euskaraz esateko zailtasunak dituztela. Kontu horri buruzko zenbait adibide jartzen dute eta hausnarketa egiten, gero.

58. Juergan atera eta denak euskaraz, baina... (GTX-008/021)

Juergan atera eta euskararako joera izaten da Ziortza eta Aneren kuadrillan, baina, era berean, jardun baldintzatua izaten da. Delako "baldintzak" aletzen dituzte pasarte honetan.

59. Euskaraz non, noiz eta norekin (GTX-008/022)

Euskaraz non, noiz eta norekin egitea baldintzatzen duten hainbat baldintza eta faktore.

60. Euskararen gauza "guay"ak (GTX-008/024)

Behin nerabezaroa pasata euskaldun izaerari eusteko erabakia hartzea da "guay"; errealitate erdaldun batean nork bere "euskal aletxo" jartzea.

61. Telebista eta zine gutxi euskaraz (GTX-008/027)

Gazteek gustuko dituzten gaiak aletzen dituzten telebista saio gutxi daude, eta euskarazko filmetan dagoen aukera ere ez da behar bezain oparoa. Gainera, Algortan ia ez da aukerarik zineman filmak euskaraz ikusteko.

62. Euskal musika (GTX-008/028)

Gaur egun, duela hamar urte baino aukera gutxiago dago estilo ezberdinetako euskal musika eskuratzeko.

63. Euskal Telebistako programazioa (GTX-008/029)

Garaiko programazioari buruzko iritzia.

64. Latzen taldearen "lartzana" (GTX-008/031)

Anek Latzen taldearen "lartzana" kanta hautatuko luke, inor euskarara abesti baten bidez gerturazki beharko balu.

65. Nerabetasuneko kontuak (GTX-008/035)

Mikel Laboa eta haren musika erakargarri izan al daitezke egungo gazteentzat? Galdera horretatik abiatu eta zine kontuez hitz egiten bukatu.

66. Euskal literatura (GTX-008/036)

Ziortzaren ustez euskararekin zuzenean lotzen diren pertsonaiak falta ditugu literaturan. Anek aitortzen du euskarara ekarritako itzulpenak ez dituela gogoko, orokorrean.

67. Nerabeak eta sexualitatea (GTX-008/037)

Nerabetasunean purian izaten den gaia da sexualitatearena. Ziortzak uste du gai horri buruzko informazioa euskaraz ematea izan daitekeela hizkuntza gazteei erakargarri egiteko modu bat.

68. Helduak haurren eredu (GTX-008/039)

Gaztetxoei euskaraz egiteko esaten diegu sarritan, baina koherenteak al gara agindu horrekin? Haurrak euskaraz egitera behartu behar dira?

69. Sexualitate kontuak gazteleraz (GTX-008/040)

Sexualitate kontuak gazteleraz tratatzen dituzte Ziortzak eta Anek, eta hala egiten dute euren inguruko lagun gehienek ere. Berdin gertatzen zaie droga kontuak aipatu behar badira, esaterako. Hezkuntza formaletik kanpo dagoen hainbat gairen inguruko erreferentzia euskaldunene falta sumatzen dute.

70. Bizarra Lepoan Algortako Euskara Elkarte (GTX-008/044)

Jaurlaritzaren euskararekiko sentsibilizazio kanpainak eta tokian tokiko euskara talde eta elkarten lana.

71. Euskaraz jakiteak merezi du. (GTX-008/047)

Ane euskaldun izateaz harro dago.

72. Euskaraz jakiteak merezi du. (GTX-008/048)

Ziortzak dio gauza asko eman diola euskarak, baina batez ere, ezer kendu ez diola azpimarratzen du.

73. Etxea nolakoa zen (GTX-013/002)

Etxearen inguruko oroitzapen handiegirik ez daukan arren, nolakoa zen kontatzen du.

74. Amamarekin dituen oroitzapenak (GTX-013/004)

Amamarekin dituen oroitzapenen inguruan dabil berbetan.

75. Etxean ez zen kontu asko antzuten (GTX-013/005)

Etxean kontu gutxi kontatu izan dira, aitarekin denbora gutxi

76. Asko aldatu da Getxo (GTX-013/006)

Getxo asko aldatu da, asko handitu da, orain ez du ezagutzen

77. Aldeanu eta kokola (GTX-013/007)

Aldeanu deitzen zieten eta ergelak zirela esan

78. Erlijioa oso presente egon da beti (GTX-013/009)

Erlijioa oso presente izan du, mojekin asko ibili izan zelako

79. Irainari harrikadarekin erantzun (GTX-013/010)

Bere ahizparekin sartzeagatik beste ume bati harrikada bota zionekoa

80. Umetan eraztun bat ogiagatik aldatu zuenekoa (GTX-013/011)

Umetan, jatea asko gustatzen zitzaionez, eraztun bat ogiagatik aldatu zueneko pasadizoa kontatzen du.

81. Gaztetako ibilerak: Palasera, frontoira, zinemara... (GTX-013/012)

Lagunekin Plentziara joaten zen Palasera dantzatzera, edo Berangora zinemara

82. Lantokian euskaraz ondo egiteko ahaleginak (GTX-013/015)

Zapata-dendan batzuetan euskaraz egiten du baina, adibidez, zenbakiekin nahastu egiten dela kontatzen du. Beste hizkuntza batzuk ere badakizki.

83. Euskararen garrantziaz (GTX-013/016)

Berarentzako euskara oso garrantzitsua da, sustraiengatik.

84. Euskararen etorkizunaz (GTX-013/017)

Euskararen etorkizuna ona dela iruditzen zaio. Badira euskaraz hitz egiten duten edo euskara ikasten ari diren kanpotarrak eta hori garrantzitsua iruditzen zaio.

85. Emakumezkoek agintzen zuten etxean (GTX-013/018)

Etxean emakumeek agindu dutela kontatzen du; gizonezkoek dirua ekarri dutela dio baina baina emakumezkoek gobernatzen zutela hura

86. San Isidroak (GTX-013/019)

San Isidroetara joateko ohitura du. Garai bateko probak eta barkilleroak dakartza gogora.

87. San Juanetako antzerkian parte hartzen zuen (GTX-013/020)

San Juan gauean sua soloan, eta Sopelan antzerkiak egin izan ditu ikastolarentzako dirua lortzeko

88. Baserritik lortutakoa salduz bizi ziren (GTX-014/007)

Amak soloan hartzen zuena eta bi behiren esnea saltzen zuten bizitzeko.

89. Eskolara nora joan zen (GTX-014/008)

Txikitan Getxoko eskolara joan zen, gero Portu Zaharrera mojatara. Erdaraz egiten behar izaten zuten; euskara etxean bakarrik.

90. Ikatza nondik lortzen zuten (GTX-014/009)

Ikatza batzen zuten, itsasadarrek labe garaietatik Getxoko hondartzetara ekartzen zuten zaborrarekin.

91. Bilbora lanera 18 urterekin (GTX-014/010)

Ezkundu arte, Bilboko Martini & Rossi enpresan lan egin izan zuen botilak betetzen eta tapa jartzen.

92. Etxean euskaraz, kalean erdaraz (GTX-014/012)

Kalean gutxi egiten zuten euskaraz. Senarrarekin egiten zuen, euskalduna ze, Urdulizkoa. Familiarekin ere egiten zuen. Aitite hil arte, dena euskaraz egiten zuten, erdaraz ez baitzekien.

93. Aititaren lurrak (GTX-014/013)

Aititek izan zituen lurretan eraiki ziren familiaren etxeak.

94. Gurasoak nongoak ziren (GTX-014/014)

Ama Urdulizekoa, aita Getxokoa. Biak euskaldunak ziren. Aititek ez zuen erdara jakin.

95. Mezetara Berangora, baina elizkizunak Getxon (GTX-014/016)

Mezetara Berangora, baina elizkizunak Getxon.

96. Umetako jolasak (GTX-014/017)

Txikitan soka-dantzan, diabolon... Kantak erdaraz ziren.

97. Inguruko jaiak (GTX-014/018)

San Isidroak eta Andra Mariak Getxon, Santo Domingotxu Berangon.

98. Gabon gauean ogiaren punta gordetzeko ohitura (GTX-014/020)

Gabon gauean ogiaren punta ebaki eta bedeinkatu ostean datorren urtera arte gordetzen dute. Txakurren amorruaren kontrakoa dela esaten da.

99. Zapatu Santuan ur bedeinkatua bota (GTX-014/023)

Zapatu Santuan ur bedeinkatua hartu eta etxean zein soloan botatzen da sorginak uxatzeko.

100. Sorginen inguruko kontuak (GTX-014/025)

Berangoko kanteran eta Larrabasterran sorginak zeuden.

101. Haginak erortzean sagutxoak dator (GTX-014/026)

Haginak erortzen direnean Erratoitxu dator.

102. Gerrako kontuak (GTX-014/027)

Gerra garaian soloan tunel bat egin zuten bonbetatik babesteko. Soloan granada bat erori zen

103. Martiturri izenaren jatorria (GTX-015/003)

Martiturri, "mahasti-iturri" hitzetatik datorrela uste dute.

104. Aitite eta amamari buruz (GTX-015/004)

Aitite igeltsero eta soloan, amama bendejatan.

105. Aitite-amamak soloko jakiak ematen zizkieten (GTX-015/005)

Aitite-amamak soloko jakiak ematen zizkieten.

106. Getxo eta Andra Mari (GTX-015/007)

Getxo eta Andra Mari leku izenak nola erabili ohi dituzten.

107. Ez zuten pentsatzen beraien euskara polita zenik (GTX-015/008)

Ez zuten pentsatzen beraien euskara polita zenik.

108. Lehen bizitza kalean, baina leihoak itxita (GTX-015/009)

Lehen bizitza kalean, baina leihoak itxita.

109. Auzolana lehen (GTX-015/013)

Lehen auzolana bazegoen.

110. Getxoko eskolak zeintzuk ziren (GTX-015/014)

Getxoko eskolak zeintzuk ziren.

111. San Nikolas ikastolaren hasiera (GTX-015/015)

San Nikolas ikastolaren egoitzak zeintzuk izan ziren.

112. Getxoko lehenengo eskolak euskara hutsean (GTX-015/016)

Getxoko lehenengo eskolak euskara hutsean.

113. Neskak eta mutilak ezberdin tratatzen ziren (GTX-015/017)

Neskek egin behar izaten zituzten etxeko lanak.

114. Umetako jolasak (GTX-015/018)

Joko batzuetan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

115. Auzoko umeak elkarrekin eskolara (GTX-015/019)

Auzoko umeak elkarrekin joaten ziren eskolara. Kalean gazteleraz hitz egiten zuten beraien artean.

116. Gaztelaniaz jolasten zuten (GTX-015/020)

Kalean asko jolasten zuten eta jolasak gazteleraz ziren. Lagun denek ez zuten euskaraz egiten etxean. Ez zuten euskarazko jolasen erreferenterik.

117. Gazteetan hasi ginen kalean euskaraz egiten (GTX-015/021)

Gazteetan hasi ginen kalean euskaraz egiten, eskaut taldean. Etxean gazteleraz egiten bazuten, amak errieta egiten zien.

118. Etxean beti euskaraz, nahiz eta gaztelania jakin (GTX-015/022)

Etxean beti euskaraz, nahiz eta gaztelania jakin

119. Getxoko zinemak (GTX-015/023)

"Gran Cinema" eta "Gurea" ziren Getxoko zinemak.

120. Auzoaren aldaketak (GTX-015/024)

Autozinemak mugimendua eman dio auzoari, Ibarbengoako (Iberberango) geltokia egin zenetik oso baztertuta egon da.

121. Etxez etxe kantuan (GTX-015/026)

Etxez etxe kantatzen zuten eskautarekin. Txistu taldearekin ere jaietara joaten ziren.

122. Solfeo eta txistu eskolak (GTX-015/027)

Ume asko joaten ziren solfeo ikastera.

123. Elizara sartzeko bakoitzak bere atea zuen (GTX-015/028)

Bizitokiaren arabera ate batetik edo bestetik sartzen dira Andra Mari elizara.

124. Elizak izan dituen aldaketak (GTX-015/029)

Eliza ez da asko aldatu, duen usain berezia mantentzen da. Ataria itxi izana izan da aldaketa nagusia.

125. Jai erlijioso garrantzitsuenak (GTX-015/030)

Jai erlijioso garrantzitsuenak: Andra Mariak, San Isidroak eta Domu Santuen eguna.

126. Amamek bijilia egiten zuten Aste Santuan (GTX-015/032)

Amamek bijilia egiten zuten, haragi-uztea, Bariku Santuan.

127. Domu Santutan hilerrietara (GTX-015/033)

Domu Santutan hilerrietara joaten ziren eta meza egoten zen bertan.

128. Euskararekiko kontzientzia (GTX-015/036)

Gurasoen aldetik euskara erreibindikazioa zen, bera nagusi izan arte ez zen kontziente izan.

129. Euskaraz egiteagatik, "exotikoa" (GTX-015/037)

Bilbora joaten hasi zenean, "exotikoa" zen euskara jakiteagatik.

130. Euskara, harro sentitzeko gauza (GTX-015/038)

Bere belaunaldian euskara harro sentitzeko gauza izan da, lorpen bat. Gurasoen garaian errepresioa zen nagusi.

131. Zer den euskara beretzat (GTX-015/039)

Euskara gauza askoren garraioa da, kulturarena, adibidez. Bere euskara zakar bezala ikusten zuen, orain ez. Hitz egin bezala idazten zuen, batura bideratzen zituzten.

132. Arropa eskuz garbitzen zen (GTX-016/006)

Arropa eskuz garbitzen zen egurrezko harrian. Ur beroa lortzeko sukaldeko txapan berotzen zen.

133. "Aldeanos" esaten zieten (GTX-016/008)

Beti egon da baserritar eta kaletarren arteko hika-mika.

134. Eskolan erdaraz (GTX-016/009)

Eskolan erdaraz, orduan hasi ziren ikastolak.

135. Aita umea zenean, euskaraz egiteagatik belarrondokoa (GTX-016/010)

Aita umea zenean, euskaraz egiteagatik guardia zibil batek belarrondokoa eman zion eta iraindu egin zuen.

136. Amak beti euskaraz egiteko esaten zien (GTX-016/011)

Amak beti euskaraz egiteko esaten zien.

137. "Hable en castellano" (GTX-016/012)

Eskola publikoan, euskaraz egiteagatik zigorrik ez zieten jartzen, baina "hable en castellano" esan bai.

138. Euskara, "aldeanoen" kontua (GTX-016/013)

Andra batek umearekin euskaraz zergatik egiten zuen galdetu zienekoa, "aldeanoen" kontua zela esanez.

139. Erlijioa txikitatik sartzen zieten (GTX-016/015)

Erlijioa txikitatik sartzen zieten, eskolan eta elizan.

140. Eskaut taldea (GTX-016/016)

Eskaut taldeari esker gazteak batuta zeuden auzoan. Elizaren proiektu bat izan zen.

141. Abadeak euskaldunak (GTX-016/017)

Getxon (Andra Marin) abadeak euskaldunak ziren eta meza nagusia euskaraz ematen zuten.

142. Gaztetan dantzatzera inguruko herrietara (GTX-016/018)

Gaztetan dantzatzera eta diskora joaten ziren. Algorta, Deustu, Bilbo, Barakaldora...

143. Soldaduska Madrilen egin zuen (GTX-016/019)

Soldaduska Madrilen egin zuen. Euskaldunak txarto tratatzen zituzten.

144. Diktadura garaia (GTX-016/020)

Diktaduran bazekiten zer zegoen, baina beldurra pasatzen zen.

145. Diktaduran Radio Londres entzuten zuten sekretuan (GTX-016/021)

Diktaduran Radio Londres entzuten zuten sekretuan.

146. Erdaraz irratia entzuten ikasi zuen (GTX-016/022)

Erdaraz irratia entzuten ikasi zuen, lau-bost urte zituenean.

147. Auzokoak euskaldunak ziren jakin ez (GTX-016/023)

Orain dela gutxira arte ez du jakin auzoko batzuk euskaldunak ziren. Euskaldunen artean euskaraz egiten zuten, gero erdaldunekin batzean hasi ziren erdaraz egiten.

148. Guraso euskaldunak eta seme-alabek euskararik jakin ez (GTX-016/024)

Amak errieta egiten zien gaztelaniaz egiteagatik. Guraso euskaldunak eta seme-alabek euskararik jakin ez.

149. Andra Mari, Getxoko auzoa (GTX-017/002)

Azkorran etxekoa da, orain Andra Mari deritzon Getxoko auzoan.

150. Gurasoen lanbideak (GTX-017/005)

Amak soloan eta etxean egiten zuen behar, eta beti zaintza lanak egiten zituen. Aita elektrikaria zen, "Mécánicas La Peñan" eta Sopelako Udalean.

151. Ama bendeja saltzen (GTX-017/006)

Ama bendeja saltzen joaten zen Portalteraino (Portugaleteraino).

152. Inguruko etheen izenak (GTX-017/007)

Inguruko etheen izenak: Martiturri, Tosu, Iberberango...

153. Soloko barazkiak (GTX-017/008)

Solotik hartzen zutena jaten zuten. Soloan zer zegoen.

154. Baserriko animaliak (GTX-017/009)

Etxean txerriak, untziak eta oiloak. Txarriboda egiten zuten.

155. Hilko zuten txerri batek ihes egin zuenean (GTX-017/010)

Hilko zuten txerri batek ihes egin zuenean eta beraiek penagatik txerria animatzen ibili zirenekoa.

156. Txerri-hilketa eta txarriboda (GTX-017/011)

Txerri-hilketa eta txarriboda nola egiten zuten.

157. Taloa bakailoarekin nola egiten zuten (GTX-017/012)

Talora bakailoarekin nola egiten zuten.

158. Txerria hiltzen zen egunean jende asko etortzen zen (GTX-017/013)

Txerria hiltzen zen egunean jende asko etortzen zen, baina txarriboda beste egun baten egiten zen.

159. Txerriekiekin zer egiten zuten (GTX-017/014)

Txerriekiekin zer egiten zuten.

160. "Aldeanas" deitzen zieten (GTX-017/016)

Getxokoei (Andra Marikoei) aldeano esaten zieten. Pertsona batzuek horregatik euskara utzi zuten.

161. Inguruko auzoekin harremana (GTX-017/017)

Algortakoak señoitoak ziren, Areetakoak askoz gehiago eta Negurikoak beste unibertso batekoak.

162. Ura oso berandu heldu zitzaien (GTX-017/021)

Ura oso berandu heldu zitzaien, eta errepidea ere zaindu barik zegoen. Ura putzutik hartu behar zuten.

163. Aingeru Guardako ermitara prozesioa egiten zen (GTX-017/025)

Urriaren 1ean, komunioa egin behar zuten umeak prozesioan joaten ziren Getxoko elizatik, San Migelen irudiaren atzetik, kandela batzuekin. Dantza bat egiten zitzaion santuari.

164. Getxoko Benta eta inguruak (GTX-017/026)

Benta auzoa eliz azpian dagoen auzo bat da. Getxoko lehenengo udaletxea Bentan egon zen. Taberna, bizargina, Pako denda, Poli goxoki-denda...

165. San Isidro eta Andra Mari jaiak (GTX-017/027)

San Isidro eta Andra Mari jaiak nola ospatzen ziren.

166. Paperez egindako soinekoen lehiaketa (GTX-017/028)

Jaietan paperez egindako soinekoen lehiaketa egiten zen.

167. Jaietan egiten ziren gauzak (GTX-017/029)

Jaietan egiten ziren gauzak: umeentzako jolasak, dantzaldia...

168. Ikasketak (GTX-017/030)

Eskola partikular batera joan zen txikitik. Gero Bidegorri akademiara eta ondoren institutura.

169. Lehenengo euskarazko klaseak Getxon (GTX-017/031)

Lehenengo euskarazko klaseak Getxon. Irakasleetako bat Bidegorri akademiakoa zen. Beraiek dena gazteleraz ikasi zuten.

170. Etxekoei esker mantendu dute euskara (GTX-017/032)

Familian euskaraz egiten zuten, kanpoan normalean erdaraz. Erdaraz egiten bazuten amak zigortu egiten zituen. Horri esker mantendu dute.

171. Ikasketak amaitu eta ile-apaintzaile (GTX-017/034)

Ikasketak amaitu eta ile-apaintzaile bezala beharrean hasi zen izekoren ile-apaindegian.

172. Umetako jolasak (GTX-017/035)

Umetan nola pasatzen zuten denbora eta zertara jolasten zuten.

173. Gaztetan dantza taldean (GTX-017/036)

Gaztetan egiten zutena. Itxas Argia dantza taldean sartu ziren.

174. Eskaut taldea eta dantza taldea (GTX-017/037)

Getxoko Eleizpe eskaut taldean zeuden, batez ere mendira joateko, eta Itxas Argia dantza taldean ere bai.

175. Zinema eta etxeko festak (GTX-017/038)

Gaztetan zinemara joaten ziren eta etxean guatekeak egiten zituzten.

176. Elizara Getxora, baina erosketak Berangon (GTX-017/039)

Elizara Getxora, baina erosketak Berangon.

177. Elizako sarrerak (GTX-017/040)

Bere atea behekoa da, baina ez du ezagutu Goiherri eta Beherri banaketa.

178. Gabonak nola ospatzen zituzten (GTX-017/041)

Gabonak nola ospatzen zituzten.

179. Olentzero ospatzen nola hasi ziren (GTX-017/042)

Olentzero ospatzen nola hasi ziren.

**180. Etxean euskaraz, kalean gehienbat erdaraz
(GTX-017/043)**

Etxean euskaraz, kalean gehienbat erdaraz. Amaren familian euskara gehiago.

181. Euskara batua eta Getxoko euskara (GTX-017/045)

Euskara batua eta Getxoko euskararen inguruan.

**182. Hogeita hamar urte zituela alfabetatzen hasi zen
(GTX-017/046)**

Hogeita hamar urte zituela alfabetatzen hasi zen.

183. Beretzat oso garrantzitsua da euskara (GTX-017/049)

Debekatuta zegoenez, izen legala nagusitan jarri behar izan zuen euskaraz.

184. Euskara gutxi egiten da (GTX-017/050)

Euskara gutxi egiten da. Seme-alabek eta haien bikoteek euskaraz dakite, baina euren artean erdaraz egiten dute.

185. Trantsizio garaia (GTX-017/051)

Trantsizioa askatasuna izan zen, beldurrak desagertu ziren.

186. Komunikabideak euskaraz (GTX-017/052)

Telebista eta irratia euskaraz garrantzitsua, baina ez da oso ona.

**187. Getxoko Andra Mari nahiko abertzalea zen
(GTX-017/053)**

Getxoko Andra Mari nahiko abertzalea zen. Frankismoaren amaieran oso une alaiak.

**188. Getxoko mendiak, errekek eta hondartzak
(GTX-017/054)**

Getxoko mendiak, errekek eta hondartzak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com